

## **Bahikuntza**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1991-04-16: 2.

Bahikuntza mota bat baino gehiago jasan du gizarteak.

Zergak hainbat bai.

Bada gerrako basatia dena; odolezkoa, soldadutzakoa; haren etsaigoak zuzenean kentzen diguna, eta oker-maltzurki ostutzen dizkigun guztiak.

Ez dut zuzen kenduak direla aitortzen duenik ezagutu.

Halere: gaur norbaitek jaso berria duen bahikuntzaren mehatxua aipatzea legezko deritzait: familia osoa bizi den sapaiazen urteroko zifretan 20.000 pezetako zerga garaiz ordaindu ez duelako, etxebizitza kenduko dioten mehatxua bota diote ama bati, menbrete, zigilu, firma eta guzti.

"Todopoderosua" deitzen zioten nire Amuay-ko lagun bati, eta ez zitzaion inoren kontrako indarkeriarik ezagutzen.

Legearen agindua beharrezkoa da, baina bahitzailea den legeitsuak baino gehiago ikusten ez duen zerga-kobratzailearen esku bageunde, honez gero hasiak ziren lanera joateko bizikletak eta otartekoak kentzen. Eta esan behar da hau ez dela beti hala izan, zeren eta badakigu aintzina merkatura zihoan norbaiti zeramakiena bahitzea debekatua zegoela; gaixorik zegoen inori ere, sendatu edo hiltzen zen arte; alokairuan zeuden lurrak, landuak zeuden bitartean; zaldieria ere, norbait gainean zeramala, astoak barne; baina gaur, zerorri bizi zaren etxea bahitzeko mehatxua botatzen dizute nahiz eta zergaren eskabidea idatziz jaso ez baduzu ere, kasu honetan zordunaren bentajan Postalgoa gaizki badabil, esate baterako.

Eta, derrepente!, hau egia izan!!